

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4697

EBAZPENA, 2025eko urriaren 28koa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena; honen bidez, argitara ematen da 2026-2027 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan eta ikasturtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bitartez, onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia. Agindu horrek ezartzen du berdinketa kasuak konpontzeko irizpidea abizenen eta izenen arabera hurrenkera alfabetikoa izango dela, eta urteroko zozketa baten bidez ebatziko da zein letratik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztuko du zein hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua ordezkogaiak, hau da, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehen ordezkogai ikasturtean zehar deitu daitekeen edozein hautatze-prozesutan.

Zozketa hori 2025eko urriaren 27an egin zen Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honen egoitzan. Horregatik guztiangatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Argitara ematea «R» letrak zehaztuko duela nork zein hurrenkera izango duen ordezkogaien zerrendan 2026-2027 ikasturtean. Letra hori erabiliko da berdinketa-kasuetan. Era berean, letra horrek zehaztuko du zein hurrenkeran parte hartuko duten izangaiek ikasturtean egiten den beste edozein hautaketa-prozesutan. Horrela, bada, «R» letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 28a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.